

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

2/2021 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituena.

SARS-Cov-2 birusak eragindako osasun larrialdiak denboran irauteak berekin ekarri zuen 2020. urtearen amaieran lehendakariak neurri murriztaileak ezartzea abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren bidez. Dekretu horretan testu bakar batean biltzen eta eguneratzen dira alarma egoeraren deklarazioaren eremuan egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko hartu ziren prebentzio neurri espezifikoak. Haren edukia hiru dekretu hauek aldatu dute gero: abenduaren 22ko 47/2020 Dekretua, urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretua eta urtarrilaren 22ko 4/2021 Dekretua.

Neurri murriztaile horiek 2021eko lehen hilabeteetan iraun badute ere, kutsatze mailaren eragina gutxitu dela eta, SARS-CoV-2aren intzidentzia txikiagora egokitu dira martxotik aurrera.

Horrela, lehendakariak martxoaren 6ko 13/2021 Dekretua onartu du, hain zuzen ere prebentzio neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratzen dituena, alarma egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. Dekretu horren neurriak 2021eko martxoaren 9ko 00:00etan jarri dira indarrean.

Guztiarekin ere, osasun krisialdia 2021eko lehen hilabeteetako jarduera ekonomikoan izaten ari den eragin negatiboari aurre egite aldera, beharrezko gertatzen da neurriak hartzea, zerga arlokoak kasu honetan, ondorio kaltegarriak arintzeko. Neurri horiek, gainera, planteatu behar dira ekonomikoa derri-gorrez suspertzeko ikuspegitik.

Alde horretatik, gogora ekarri beharra dago Foru Aldundiak abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Araua onartu zuela, hain zuzen ere, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa. Bertan hainbat neurri jasotzen ziren 2021. urterako, bai malgutze neurriak bai ekonomia suspertzekoak. Hori hala izanik ere, COVID-19aren eraginaren egungo egoeraren aurrean, egoki irizten da jarduera ekonomikoaren titularentzat konpentsazio neurriak planteatzea. Neurri horiek foru dekretu-arauek honen 6 artikuluetan eta bi xedapen gehigarrietan jasotzen dira.

Horrela, foru dekretu-arauek 1. artikulua bertan behera uzten du pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren 2021. urteko lehen eta bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak egiteko obligazioa.

2. artikulua neurriak ezartzen ditu COVID-19agatik bereziki kaltetuta gertatu diren jarduera ekonomikoak garatzen diren lokalaren errentamenduei laguntzeko. Horrela, 2021. urterako, alokairuaren errentan adostutako beharpena gastu kengarria izango da pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren, sozietatearen eta enpresaren errentaren gaineko zergaren, zerga

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Decreto Foral-Norma 2/2021, de 23 de marzo, de medidas tributarias extraordinarias adicionales relacionadas con la COVID-19 y de apoyo a la reanudación y digitalización de la actividad económica.

La persistencia de la crisis sanitaria ocasionada por el SARS-CoV-2 provocó que a finales de 2020 se aprobaran las medidas restrictivas establecidas por el Decreto 44/2020, de 10 de diciembre, del Lehendakari, de refundición y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, cuyo contenido ha sido objeto de modificación por los Decretos 47/2020, de 22 de diciembre, 1/2021, de 12 de enero y 4/2021, de 22 de enero.

Dichas medidas restrictivas han continuado durante los primeros meses de 2021, si bien a partir del mes de marzo, y de resultados de una reducción de la incidencia de los niveles de contagio, se han adaptado a una menor incidencia del SARS-CoV-2.

Como consecuencia de ello, se ha aprobado el Decreto 13/2021, de 6 de marzo, del Lehendakari, de primera refundición en 2021 y en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, cuyas medidas han entrado en vigor a las 00:00 del día 9 de marzo de 2021.

Ello no obstante, para hacer frente a la incidencia negativa en la actividad económica de la crisis sanitaria durante los primeros meses de 2021, resulta necesario adoptar medidas, en este caso, de carácter tributario, para paliar sus efectos adversos. Dichas medidas deben, además, estar planteadas desde la perspectiva de impulsar la necesaria reactivación económica.

Al respecto cabe recordar que la Diputación Foral aprobó el Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola de la COVID-19, que incluía una batería de medidas de flexibilización y reactivación económica para el año 2021. Ello no obstante, el contexto actual de la incidencia de la COVID-19 ha conducido a plantear medidas de compensación a los titulares de actividades económicas. Dichas medidas se recogen en 6 artículos y en las dos disposiciones adicionales del presente decreto foral-norma.

Así, en el artículo 1 del decreto foral-norma se exime de la obligación de realizar los pagos fraccionados del primer y segundo trimestre de 2021 del impuesto sobre la renta de las personas físicas.

En el artículo 2 se incluyen medidas de apoyo a arrendamientos de locales dedicados al desarrollo de actividades económicas especialmente afectadas como consecuencia de la COVID-19, reconociéndose para 2021 un gasto deducible en la base imponible del impuesto sobre la renta de las personas físicas.

tateen gaineke zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineke zergaren zerga oinarrian, betiere baldin eta errentariak jarduera ekonomikoak egiten baditu.

Kapital higiezinaren eta kapital higigarriaren etekin garbiak zehazteko pertsona fisikoaren errentaren gaineke zergan ezarrita dauden mugak kontuan hartuta -haien arabera, etekin garbia ezin da izan negatiboa, higiezin bakoitzeko-, aurreikusten da kenkari gehigarri bat aplikatzea kuota osoan, hain zuzen ere, zerga oinarrian gastu gisa kendu ezin izan den beherapenaren 100eko 15ekoa.

Kenkari hori aplikatu ahal izateko, hainbat baldintza bete behar dira. Zehazki, errentatzaileak gutxienez hiru hilabetez mantendu behar du, 2021ean zehar, alokairuaren errentan bere borondatez adostutako beherapena. Orobat, errentariak edo hiru-garrenek debekatua dute beherapen hori geroago konpentsatu edo berreskuratzea hurrengo epealdietako errentak igoz, beste prestazio batzuk ezarri edo beste edozein eratako kontraprestazio bidez.

Bukatzeko, kenkari hori ez da aplikatuko errentatzailea eta errentaria lotuta daudenean edo ahaidetasun harreman bat dutenean.

3. artikulua, bere aldetik, 100eko 10eko kenkari berezi bat ezartzen du COVID-19agatik kaltetuta gertatu diren jarduera ekonomikoak berrabiarazten laguntzeko. Zehazki, pertsona fisikoaren errentaren gaineke zergari, sozietateen gaineke zergari edo establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineke zergari lotuta dauden eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldian inbertsio jakin batzuk egiten dituzten zergadunek aplika dezakete kenkari hori.

Kengarriak izan daitezten, inbertsio horiek helburu hauek eduki behar dituzte: instalazioak egokitzea bertako edukierak kontrolatzeko, erreserbak kudeatzea, COVID-19aren transmisioa saihesteko beharrezkoak diren prebentzio neurriak bermatzea, edo instalazioak edo zerbitzuak emateko bitartekoak berritu edo eguneratzea, presentzialki zein urrutitik, bere jardueran zergadunak baliatzen dituen bitartekoen erabilera optimizatzea.

4. eta 5. artikuluek TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen borondatez betetzea bultzatu nahi dute.

Nahiz eta azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, jasota uzten duen TicketBAI betebeharraren derrigortasuna 2022ko urtarrilaren 1ean hasiko dela, ahaztu gabe, betiere, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuak, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duenak, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako egutegia, aipatutako 3/2020 Foru Arauak zerga onurak aurreikusten ditu 2020. urteetik aurrera TicketBAI betebeharra ezartzeko behar diren gastu eta inbertsioak egiten dituzten zergapekoentzat.

Horrela, foru dekretu-arauaren 4. artikulua zerga onura horiek igotzen ditu TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen hasten bada borondatez betetzen. Izan ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineke Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasota dagoen kenkaria, gorago aipatutako 3/2020 Foru Arauaren 1.Bi artikulua bidez ezarria, 100eko 60raino igotzen da. Orobat, kenkariaren oinarria kalkulatzeari begira, hogeita bigarren xedapen gehigarri horren 2.b) apartatuko b) letran aurreikusten den muga 1.500 euroraino gehitzen da.

sicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, equivalente a la rebaja de la renta de alquiler acordada siempre que la parte arrendataria sea un contribuyente que desarrolle actividades económicas.

Teniendo en cuenta los límites establecidos en el impuesto sobre la renta de las personas físicas para la determinación de los rendimientos netos de capital inmobiliario y mobiliario, en virtud de los cuales no se permite, por cada inmueble, un rendimiento neto negativo, se prevé una deducción adicional en la cuota íntegra del 15 por 100 de la parte de la rebaja que no ha podido ser deducida como gasto en la base imponible.

Para la aplicación de dichas deducciones se deberán reunir una serie de requisitos. En particular, la parte arrendadora deberá mantener la minoración de la renta de alquiler voluntariamente acordada durante al menos tres meses a lo largo de 2021 y no deberá existir ningún tipo de compensación o recuperación de la renta de alquiler en un momento posterior, bien sea mediante incrementos de rentas de alquiler de períodos de tiempo posteriores, otras prestaciones o cualquier otro tipo de contraprestación por parte de la persona arrendataria o de terceras personas.

Finalmente, esta deducción no resultará aplicable cuando la parte arrendadora y la arrendataria se encuentren vinculadas o tengan una relación de parentesco.

El artículo 3, por su parte, establece una deducción extraordinaria del 10 por 100 para el apoyo a la reanudación del desarrollo de actividades económicas especialmente afectadas como consecuencia de la COVID-19, que será aplicable por quienes estando sujetos al impuesto sobre la renta de las personas físicas, al impuesto sobre sociedades o al impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, realicen determinadas inversiones en el período impositivo iniciado a partir del 1 de enero de 2021.

Las inversiones objeto de deducción deberán tener como finalidad la adecuación de las instalaciones para el control de aforos, la gestión de reservas o la garantía de las medidas de prevención para evitar la transmisión de la COVID-19 que sean necesarias en cada momento, o la renovación o actualización de las instalaciones o de los medios de prestación de los servicios, presencialmente o a distancia, para optimizar la utilización de los medios de que dispone o el contribuyente para el desarrollo de su actividad.

Los artículos 4 y 5 se destinan a impulsar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad a 1 de noviembre de 2021.

Si bien la Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal, prevé el comienzo de su preceptividad a partir de 1 de enero de 2022, con la salvedad hecha del calendario previsto en la disposición transitoria única del Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI, la citada Norma Foral 3/2020 contempla beneficios fiscales para aquellos obligados tributarios que realicen los gastos e inversiones necesarios para la implantación de la obligación TicketBAI, desde 2020.

Pues bien, el artículo 4 del decreto foral-norma incrementa dichos beneficios fiscales cuando se anticipe de forma voluntaria el cumplimiento de la obligación TicketBAI con anterioridad a 1 de noviembre de 2021. Así, la deducción prevista en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, introducida por el artículo 1.Segundo de la referida Norma Foral 3/2020 se incrementa hasta el 60 por 100. Así mismo, a efectos del cálculo de la base de deducción, el límite previsto en la letra b) del apartado 2.b) de la citada disposición adicional vigesimosegunda se incrementa hasta 1.500 euros.

5. artikulua, bere aldetik, ahalbidetzen du aplikatzea txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria, hain zuzen ere, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga neurriei buruzko maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauaren 15. artikuluan eta COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 15. artikuluan aurreikusitakoa. Aurreko 4. artikuluan TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen borondatez betetzeagatik gehitutako kenkariaren berezitasun bereberekin aplikatuko da.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak data hori baino hasten badira betetzen, beren borondatez, TicketBAI betebeharra, gehikuntza horiek ere aplikatuko zaizkie.

Azkenik, 6. artikulua ezartzen du ezen, abal publiko bat jaso duten finantza eragiketen epemugak, hain zuzen ere, martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-Dekretuak, COVID-19aren pandemiaren aurrean enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzkoak, 7. artikuluan aurrekusiak, zabaltzeko formalizatzen diren eskriturak salbuetsita geratzen direla ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan notariotzako dokumentuei egintza juridiko dokumentatuen modalitatean aplikatzen zaien kuota mailakatutik, inskriba daitekeen berme erreal bat dagoen kasuetan.

Kontuan izanik azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragozteko tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, hogeita bigarren xedapen gehigarriari jasotzen duen kenkaria 2020. urtean ere dela aplikagarria, foru dekretu-arau honen lehen xedapen gehigarriak ahalbidetzen du kenkari hori modu gehituan aplikatzea, baldin eta 2020an egindako inbertsio eta gastuek berekin ekarri badute TicketBAI betebeharra 2021eko azaroaren 1a baino lehen betetzea borondatez.

Bere aldetik, foru dekretu-arauaren bigarren xedapen gehigarriak ahalbidetzen du 2020an egindako inbertsio eta gastuengatik aplikatzea txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria, hain zuzen ere, maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga neurriei buruzkoak, 15. artikuluan aurreikusitakoa, foru dekretu-arau honen 5. artikuluan ezartzen diren berezitasunekin. Baldintza da TicketBAI betebeharra azaroaren 1a baino lehen hastea betetzen beren borondatez.

Proposatutako neurrien izaerak eta egungo egoerari lehenbailehen erantzun beharrak beharrezko egiten dute era horretako neurriak presako bidetik onartzea foru dekretu-arau baten bitartez.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, aparteko eta presako arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela, eta xedapen horiek foru dekretu-arauen forma izango dutela. Horrelako xedapenek ezingo diete eragin foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu behar dira berehala, baliozkoak izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. *Ordainketa zatikatuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.*

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek ez dituzte autolikidatu eta or-

El artículo 5 posibilita aplicar la deducción para la transformación digital del comercio minorista, prevista tanto en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del Covid-19, como en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19, con las mismas especialidades que la deducción incrementada por el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad al 1 de noviembre de 2021, prevista en el artículo 4 anterior.

Dichos incrementos serán igualmente aplicables a las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, que anticipen voluntariamente el cumplimiento de la obligación a la indicada fecha.

Por último, el artículo 6 incluye una exención de la cuota gradual de documentos notariales de la modalidad de actos jurídicos documentados del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados, aplicable a las escrituras de formalización de la extensión de los plazos de vencimiento de las operaciones de financiación que han recibido aval público previstos en el artículo 7 del Real Decreto-ley 5/2021, de 12 de marzo, de medidas extraordinarias de apoyo a la solvencia empresarial en respuesta a la pandemia de la COVID-19, en los casos en que exista garantía real inscribible.

Teniendo en cuenta que la deducción prevista en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal, ya era aplicable en 2020, la disposición adicional primera del presente decreto foral-norma posibilita la aplicación incrementada de la misma siempre que las inversiones y los gastos realizados durante 2020 den como resultado el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad a 1 de noviembre de 2021.

Por su parte, la disposición adicional segunda del decreto foral-norma posibilita la aplicación de la deducción para la transformación digital del comercio minorista, regulada en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, con las especialidades previstas en el artículo 5 del presente decreto foral-norma, por los gastos e inversiones realizados en 2020, siempre que anticipen el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad a 1 de noviembre de 2021.

La naturaleza de las medidas propuestas y la necesidad de dar una respuesta urgente a la situación del momento, obliga a aprobar las medidas a través del procedimiento de urgencia y mediante un decreto foral-norma.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo 1. *Pagos fraccionados en el impuesto sobre la renta de las personas físicas.*

Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que ejerzan actividades económicas no estarán

daindu beharko Gipuzkoako Foru Ogasunean 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak.

Beren borondatez ordainketa zatikatu horien autolikidazioa aurkezten badute, ezingo dute eskatu dagokion zenbatekoaren ordainketa geroratu edo zatikatzea, eta ez dute eskubiderik izango ordainketa hori bidegabeko diru-sarrera gisa itzultzea eskatzeko.

2. artikulua. COVID-19aren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoak garatzeko erabilitako lokalen errentamenduei laguntzeko neurriak.

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek artikuluko honen 4., 5. eta 6. apartatueta aurreikusen diren pizgarri fiskal bereziak aplikatu ahal izango dituzte, 2020ko martxoaren 14tik aurrera alokairuaren errentan adostutako beherapenagatik, 2021. urteko hilabeteetan ordaindu beharreko zenbatekoari dagokionez.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da bai negozioen errentamenduetatik eratorritako errentak zehazteko, bai negozio-lokalen eta pabilioen errentamenduetatik datozenak zehazteko, bai jarduera ekonomikoak egiten diren etxebizitzetatik datozenak zehazteko.

2. Artikulu honetan aurreikusitako neurri pizgarriak gauzatzeko, beharrezkoa izango da alokairuaren errentan borondatez adostutako beherapena gutxienez 3 hilabetez mantentzea 2021ean zehar, eta errentariak edo hirugarren batek beherapen hori geroago ez konpentsatzea edo berreskuratzea alokairuaren hurrengo errentak igoz, beste prestazio batzuk ezarri edo beste edozein eratako kontraprestazio bidez.

3. Artikulu honetan aurreikusitako neurri pizgarriak ez dira aplikatuko baldin eta pertsona edo entitate errentaria errenta-zailearekin lotuta badago Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan 3. apartatuan jasotako zentzuan, edo harekin ahaidetasun harremanak baditu, ezkontidea edo izatezko bikotekidea barne, zuzenekoa edo zeharkakoa, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa, edo izatezko bikotearen eraketak sortutakoa, hirugarren graduraino, hau barne.

4. Sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunentzat, aurreko 1. eta 2. apartatueta alokairuaren errentari dagokionez aipatzen den beherapenaren zenbatekoa gastu fiskalki kengarritzat hartuko da zerga oinarria zehazteko.

5. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan ezarritakoagatik ondare sozietatetzat hartzen diren entitateek aurreko 4. apartatuan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango dute.

Ondorio horietarako, gastu hori fiskalki kengarria izango da aipatutako Foru Arauaren 32.2 artikuluan bigarren paragrafoan aurreikusitako baldintzetan eta etekin mugarekin.

6. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunentzat, aurreko 1. eta 2. apartatueta alokairuaren errentari dagokionez aipatzen den beherapenaren zenbatekoa gastu kengarritzat hartuko da etekin garbia zehazteko.

Guztiarekin ere, errentamendutik datozen etekinak kapital higiezinaren etekintzat hartzen direnean Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 30. artikuluan aurreikusita-

obligados a autoliquidar e ingresar en la Hacienda Foral de Gipuzkoa los pagos fraccionados correspondientes al primer y segundo trimestre de 2021.

En caso de que voluntariamente presenten la autoliquidación de dichos pagos fraccionados no podrán solicitar el aplazamiento o fraccionamiento del pago del importe correspondiente, ni tendrán derecho a solicitar la devolución posterior del mismo en concepto de devolución de ingresos indebidos.

Artículo 2. Medidas de apoyo a arrendamientos de locales dedicados al desarrollo de actividades económicas especialmente afectadas como consecuencia de la COVID-19.

1. Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, podrán aplicar las medidas extraordinarias de incentivación fiscal previstas en los apartados 4, 5 y 6 de este artículo en relación con la rebaja en la renta arrendaticia que voluntariamente hubieran acordado a partir de 14 de marzo de 2020 correspondiente a las mensualidades devengadas en el año 2021.

Lo dispuesto en este artículo resultará de aplicación tanto en la determinación de las rentas derivadas de los arrendamientos de negocio como de los arrendamientos de locales de negocio y pabellones, así como de viviendas en las que se realicen actividades económicas.

2. Para la práctica de las medidas de incentivación previstas en el presente artículo será necesario que la rebaja en la renta arrendaticia voluntariamente acordada se mantenga, al menos, durante 3 meses a lo largo del año 2021 y que la mencionada rebaja no se compense o recupere en un momento posterior, bien sea mediante incrementos de rentas de alquiler de períodos de tiempo posteriores, otras prestaciones o cualquier otro tipo de contraprestación, por parte de la persona arrendataria o de terceras personas.

3. No resultarán aplicables las medidas de incentivación previstas en el presente artículo cuando las personas o entidades arrendatarias estén vinculadas con las arrendadoras en el sentido del apartado 3 del artículo 42 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, o estén unidas con aquellas por vínculos de parentesco, incluido el cónyuge o pareja de hecho, en línea directa o colateral, consanguínea, por afinidad o por la que resulte de la constitución de la pareja de hecho, hasta el tercer grado inclusive.

4. Para las y los contribuyentes del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, tendrá la consideración de gasto fiscalmente deducible para la determinación de la base imponible el importe de la rebaja en la renta arrendaticia a que se refieren los apartados 1 y 2 anteriores.

5. Las entidades que, de acuerdo con lo establecido en el artículo 14 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, tengan la consideración de sociedades patrimoniales, podrán aplicar lo previsto en el apartado 4 anterior.

A estos efectos, dicho gasto será fiscalmente deducible en los términos y con el límite de rendimiento previsto en el párrafo segundo del artículo 32.2 de la citada norma foral.

6. Para las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas tendrá la consideración de gasto deducible para la determinación del rendimiento neto el importe de la rebaja en la renta arrendaticia a que se refieren los apartados 1 y 2 anteriores.

No obstante, cuando los rendimientos procedentes del arrendamiento tengan la consideración de rendimiento de capital inmobiliario de acuerdo con lo previsto en el artículo 30 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la

koarekin bat, gastu kengarria aipatutako foru arauaren 32. artikuluko 2. apartatuan jasotako erregelaren arabera aplikatuko da.

Alokairuaren errentak izandako beherapenaren soberazko zenbatekoa ezin bada gastu kengarri gisa aplikatu kapital higiezinaren etekin garbia zehazteko, lehen aipatutako 32. artikuluko 2. apartatuan etekinatarako aurreikusitako muga aplikagarria izateagatik, soberakin horren 100eko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango da kuota osoan.

Kuota nahikoa ez izateagatik kendu ezin diren zenbateoak hurrengo urtean amaitzen den zergaldiaren aitortzean aplikatu ahal izango dira.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa negozioen errentamendutik datozen kapital higigarriaren etekinak zehazteko ere aplikatuko da -adierazitako foru arauaren 37. artikuluko c) letran aipatzen dira etekin horiek-; kasu horretan, bai gastu kengarria zehazteko arauak eta bai etekinen muga aipatutako foru arauaren 39. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitakoak izango dira.

Apartatu honetan aurreikusitako kenkariaren aplikazioa hautazkoa da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 115. artikulua 3. apartatuan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 104. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoaren arabera gauzatu ahal izango da.

3. artikulua. COVID-19aren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoaren garapena berrabiarazten laguntzeko aparte-ko kenkaria.

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek inbertsioak egiten badituzte 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldian beren jarduera ekonomikoa berriro hasi edo berreskuratzeko edo hura osasun agintariek COVID-19ak eragindako pandemiaren aurka hartutako neurrietara egokitzeko, inbertsio horien 100eko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute kuotan.

2. COVID-19agatik beren jarduera nabarmen murriztuta ikusi duten zergadunek aplikatuko dute artikuluko honetan ezarritzen den kenkaria, eta egoera hori bi baldintza hauek betetzen direnean gertatuko da:

a) 2020. urteko eragiketa bolumena, gutxienez, 2019ko eragiketa bolumena baino 100eko 25 txikiagoa izan denean.

b) Jarduera ekonomikoak 2020an izan duen kontabilitate emaitza edo etekin garbia, gutxienez, 2019koa baino 100eko 50 txikiagoa izan denean.

Aurreko letretan aurreikusitako magnitudeak urtebetera eramango dira zergaldia urte naturala baino txikiagoa denean edo jarduera ekonomikoa zergaldi horretan hasi denean.

3. Inbertsioak kengarriak izan daitezzen, beharrezkoak izan behar dute jarduera ekonomikoak helburu hauek dituzten zereginetara egokitzeko:

a) Instalazioak egokitzea bertako edukierak kontrolatzeko, erreserbak kudeatzea, edo COVID-19aren transmisioa saihesteko une bakoitzean beharrezkoak diren prebentzio neurriak bermatzea.

b) Instalazioak edo zerbitzuak emateko bitartekoak berri-zea edo eguneratzea, presentzialki zein urrutitik, bere jardueran zergadunak baliatzen dituen bitartekoen erabilera optimizatze-ko.

